

Biriatu, Lapurdi




ARITZ GALARRAGA

Frankie, beraz, beste munduko ezer ez, baina zeozer mugiarazten dizu tripetan –eta ez al da hori film batek, artelan batek lor dezakeen gauzarik behinena?–. Argumentua, egia da, ez du bereziki originala: larriki gaixorik dagoen frantziar aktore batek bere hurkoak elkartzen ditu, Sintra, Portugalen, agurtzeko edo. Bikotekidea, bikotekide ohia, semea, alaba-ordea, lagunak bat. Une labainak izan arren, gonbidatuen arteko frikzioak sortu arren, hiltzera doanak nahi duen bakarra da: denbora tarte atsegin bat pasatzea denek elkarrekin.

Garai batean pentsatzen nuen nahiago nuela kolpetik hil –ez oraindik, lasai, ez daukat interes berezirik–. Baina kolpetik, auskalo bizi bitartean bizitzari buruz soilik pentsatu ahal izateko, eta modu horretan heriotzaren ideari iskin egiten saiatzeko. Orain ordea ez nago hain ziur, zalantza handiagoak ditut: ez ote nukeen jakin nahi noiz izango den bukaera, gutxi gorabehera, joateko pixkanaka pertsona maiteei agur esaten, itxi beharreko gauzak ixten, bizitzari osotasun bat, zentzu bat, narrazio bat ematen. Absurdoa da, badakit, oker ez banago ez baitugu aukeratzeko modurik.

Aukeratzeko agian ez, baina prestatzeko zergatik ez. Sophie Calle artistak, adibidez, badu dokumental moduko bat, zeinean agertzen den hilobi bat erosten, Bolinas, Kalifornian. Hilobi bat beretzat, noski, dagoeneko mundu honetan ez dagoenerako –eta ze gai egokia den hau, heriotzarena, eufemismoentzat–. Ez zait ideia txarra iruditzen. Nik ere, ausardia bilduko banu –eta, noski, diru pizar bat–, erosiko nuke hilobi bat, niretzat, dagoeneko mundu honetan ez dagoenerako. Zalantzarik gabe Biriatu, Lapurdi. Eta egingo nioke bizian bisitaren bat, aldaketaren bat, apaintetaren bat. Ez baita ahaztu behar bertan pasako dudala eternitate osoa. Eta hori denbora asko da. ●



“ETORKIZUNEAN ERE ERREPRESIOA PAIRATZEN JARRAITUKO DUGU”

IBON MEÑIKA ORUE-ETXEBARRIA, 11/13 MAKROEPAIKETAKO AUZIPETUA

“Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du inoiz euskal herritarren antolakuntzaren eta borrokaren zilegitasuna epaituko, ez du gure jarduera ona edo txarra izan den erabakiko. Horrela ulertzea oso garrantzitsua da, bestela Auzitegi Nazionalari ematen baitiogu hori erabakitzeko boterea. Guk preso eta iheslariak etxeratzeko lanean jarraituko dugu, borroka horretan aktibo izaten jarraituko dugu. Eta gure lana epaituko duen bakarra Euskal Herria izango da. Gu horri zor gatzazkio”. **ARGIA.EUS (2019/09/20)**